



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-04-07

VILURTEA 1.673.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Parte-hartzaileek helmugan diploma jaso zuten eta indarrak berreskuratzeko aukera ere izan zuten. IDOIA LAHIDALGA

PARTE-HARTZEA IGO DA ARAXESKO ITZULIAN

TOLOSA 83 lagunek egin zuten mendi martxa, partaidetza bikoiztuz; Euskal Federazioaren itzulien egutegian sartu nahi dute hurrengorako 2



E EZBZA

PATXI JAUREGI GIPUZKOAKO PILOTA FEDERAZIOKO LEHENDAKARIA

«Elkarrizketa sakona egon beharko luke federazioen artean»

TOLOSALDEA 5 hilabete inguru daramatza karguan eta bere erronka «pilota batzea da» 4

Axun Aierbek eginiko ikerketa lana bildu dute

IBARRA Irastorzari eta Igerabideri buruz ibartarrak eginiko ikerketa lana kaleratu dute 'Egungo euskal poesiaren historia' liburuan 6



Bertan aurkitzen diren bulegoak, HITZArena tartean, lekuz aldatu dituzte lanak amaitu arte. A. IMAZ

Leitzako udaletxean egokitze lanetan ari dira,



Araxesko Itzulian aurrekotik hona ia bikoiztu egin da parte-hartzea

Mendia » Aurten 83 lagunek egin dute itzulia; hurrengora begira, Euskal Federazioaren itzulien egutegian sartu nahi dute.

ERREDAKZIOA

Amarozko Auzo Elkarteak antolatutako Araxesko IX. Itzulia izan zen herenegun. Iraupen luzeko ibilaldia izanagatik ere, jende ugari hartu zuen parte, izan ere, aurreko urteetako partaidetza areagotu da azken ibilaldi honetan. Bolutarioak goizean goiz aritu ziren euren lanetan, eta goizeko zazpietarako hurbildu ziren mendizaleak. Guztira 83 lagunek hartu zuten parte. Hauen artean, nahiz eta gehiengo eskualdekoak izan, baziren Tolosaldeko etorri ez zirenak ere; hala nola, Azpeitia, Andoain, Hondarribia, Aia, Legazpi, Ataun, Hernando, Donostia, Arrasate, Lararte, eta baita bizkaitar, nafar eta Iparraldeko jendea ere aritu zen oinak astintzen 43 kilo-

metroko mendi martxa honetan. Partaide guztiak amaitu zuten ibilaldia, eta guztiak jaso zuten beraz, oroimen diploma, 9-11 orduz inguruneko malda, larre eta bidezidorak zeharkatu ondoren. Izan ere, 43 kilometroko ibilbidean zehar, aldapa ugari igo behar izan zuten mendizaleak.

Parte-hartzaileen hitzetan, «antolakuntzak lan bikaina egin zuen». Doakoa izan arren, ibilbidean zehar hainbat anoagune jarri zituzten, jateko eta edatekoarekin. Aipatzekoa da, Otxabion kaba edateko aukera ere izan zutela mendizaleak. Zerbitzariz jantzitako lagun batzuek kristalezko kopetan banatu zuten edaria, nahi zutenen artean.

Eguraldia ere lagun izan zuten mendizaleak. Goiza lainotuta hasi zuten eta 12:00ak aldera ateratu zuten eguzkia. Bero gehiegirik ez zuten egin eta ibiltzeko primerako eguna izan zuten.

Ibilbidearen hasieran, parte-hartzaile bakoitzari txartel bat eman zioten, kontrol gune bako-



43 kilometro zeharkatu ostean, arratsaldean itzuli ziren parte-hartzaileak Amaroztera. IDOIA LAHALDAGA

tzean zigitua jartzeko. Gainera, txartelaren atzean telefono zenbaki bat idatzi zuten, larrialdi kasuetan, bertara deitzeko. Bestalde, Gurutze Gorriak itxi zuten ibilaldia, beraiek joan baitziren azkena zihon mendizalearen atzetik.

Hurrengo ediziora begira

Datorren ibilaldiaren ospakizunari begira dena den, Amarozko Auzo Elkarteak jakitera eman duenez, kontuan izango du Euskal Mendi Federazioaren eskutik argitaratzen den Iraupen Luzeko

Itzulien egutegian Araxesko X. itzulia ere sartzea. Izan ere, Euskal Herrian dagoen mendizaleatasuna bultzatu asmoz, ikusten dute Federazioaren barruan dagoen ibilaldietara joateko joera nagusitu dela egun. Hala, Amarozko Kirol Elkarteak hartuko du etorkizuneko lekukoa, eta Federazioarekin harremanetan jarri itzuli honen arrakasta indartzeko eta bide batez mendizaleatasunaren aldeko apustua indartu asmoz. Modu honetan, Amarozko Kirol Elkartearen bitartez federatzeko aukera izateaz

gainera, itzuli hau ere Federazio Ofizialaren barruan legoke.

Antolatzaileek nabarmendu dute ere, ez zela inongo oztopo, traba edo galerarik egon, eta horrek berebiziko garrantzia duela modu honetako ospakizunetan. Beraz, etorkizuneko «Amaroz auzotik mendizaleatasuna bultzatu asmoz» tinko eutsiko dio auzo honen Araxesko itzulia antolatzeari, eta erronka bera ere indartuko du, «partaidetza areagotuz eta antolakuntzan bikaintasuna bermatuz».

Bilboko en aurka galduta, erdiko postuetatik ezin da igo Laskorain

Areto futbola » Itturiondo talde bizkaitarra izan zuten aurkari larunbatean; partida kaxkar baten ostean, 3-1 galdu zuten.

ERREDAKZIOA

Norgehiagoka trakets baten ostean, 3-1eko emaitzarekin itzuli zen Laskorain joan den larunbatean Itturiondoren aurka galdu ondoren. Hauek, tolosarrekin batera, saillkapeneko erdiko postuetan ko-

katurik daude. Beste munduko ezer egin gabe baina beti ere horitxoek baino apur bat kontzentratuago agertzea nahikoa izan zuten bizkaitarrek hiru puntuak etxean lotzeko.

Norgehiagokaren hasierak ez zuten nagusi garbirik erakutsi, baina etxekoak izan ziren 1-0koa ipintzen asmatuko zutenak kontraeraso bati etekina ateraz.

Denboraldia bukatzeko 4 jardunaldi geratzen dira oraindik eta joaneko ez ere izanagatik urtea ahalik eta hobekien amaitzea da Las-

koraingoen helburua, bi asteetako atsedenaldira baten ondoren, indarrak berritu eta Usabalgo kiroldegia bisitatuko duen Orioko Tabernak taldea menderatzeko asmatan direlarik dagoeneko Alonsoren mutilak.

Filialari dagokionez 5-4 menderatu zuten Gure-txokoa taldea eta igoera faseko postuei eutsita darrari. Pradosen neskek 0-0 berdindu zuten eta gazte taldeak berriz 6-1 galdu arren hirugarren postu dotore batean kokaturik jarraitzen du.

Asteburukoarekin, garai txarrak ari da bizitzen TAKE Tolosa

Saskibaloia » Azken lau norgehiagokak galdu ditu talde urdinak; larunbatean, Easo San Patricio izan zuten aurkari tolosarrek.

ERREDAKZIOA

Asteburu honetan ere, ezin izan zuten garaipena lortu TAKE Tolosako Easo San Patricioaren aurka. Laugarren porrotarekin jarraian itzuli behar izan zuten urdinek.

Aurreko astean bezala, aste honetan ere, tolosarrek baja ugari izan zituzten (Aierbe, Longarte, Ignacio, Lazkano eta Iker) eta azken orduan baja hauek gutxi balira bezala, Karla eta Albertorenak gehitu ziren. Beraz 3 jubenilak eta 6 kadete joan behar izan zuten partida jolastera.

Nahiz eta, porrota nabarmena eta esperokoa izan, gauza baikorrek ere ateratu daitezke, eta klubaren filosofia ikusirik, poztekoak.

Ondo hasi baina tamalez oso

gaizki amaituko den igoera fasea bukatzeko, azken partida izango dute urdinek Bergara taldearen aurka larunbat honetan, Usabalgo kiroldegian. Hasiera batean, gogo handiz espero zen taldea izango dute aurrean, aurreko fasean izandako liskarrak direla eta. Baina azken asteetako entrenamenduetan eta jokalariek batzuen jarrera ezegokiak ikusirik, denboraldia ahalik eta itxura onenarekin amaitzea espero dute TAKE Tolosako ordezkariek batzuek.



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

TOLOSAKO HIRI ORDENAZIOKO PLAN OROKORAREN BEHIN BETIKO ONESPENA

DOKUMENTUA: Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokoraren Testu Bategina, 2009ko urtarrikoak.

SUSTANTZAILA: Tolosako Udala.

BEHIN BETIKO ONESPENA: Tolosako Udalbatzak, 2009ko martxoaren 3an egindako ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez.

PLANEAMENDUKO ERREGISTROAN AURKEZPENA: 2009ko martxoaren 6an.

BEHIN BETIKO ONESPENEN ERABAKIAREN ZATI XEDATZAILA:

.../...

ERABAKI DU

Lehen. Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorra –erredaktore taldeak 2009ko urtarrian idatzitako Testu Bateginaren jaso- behin betiko onartzea.

Bigarrena. Tolosako Udalbatzaren 2007ko maiatzaren 8ko Osoko Bilkuran erabakitako lizentzia etenaldiaren amaitzea.

Hirugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordeari behin betiko onarpen erabakia jakinaraztea.

Laugarrena. Plan Orokorri buruzko ingurumenarekiko eraginaren behin betiko txostenean (2008ko azaroaren 6koan) ezarritako baldintza betetzea. Baldintza horren arabera, Plana behin betiko onartu ondoren, alde batetik, hura Eusko Jaurlaritzaren ingurumen organoari igorri egin behar zaio eta, bestetik, honako alderdi hauek zehazten eta/edo biltzen dituen dokumentua egin behar da:

* Planean ingurumenaren gaineko alderdiak zer modutan sartu diren.

* Planean honako gai hauei emaniko tratamendua: ingurumen ebaluazioaren azterketa; kontsulten emaitzak; ingurumenarekiko eraginaren behin betiko txostena; prozesuan sartu ahal izan diren desadostasunak.

* Onartutako plana hautatzeko arrazoiak, aintzat hartutako alternatibekin alderatuta.

* Planean ingurumenarekiko eraginei segimendua egiteko hartutako neurriak.

* Aurretik aipatutako gaien inguruko laburpen ez-technikoa.

Bestigarrena. Plana Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, Hirigintzako Planeamenduen Administrazio Erregistroan jaso dezan.

Seigarrena. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onarpen erabakiaren eduki osoa, Planean hirigintza arauak eta lizentzien etetearen amaiera, adieraziz, era berean, Plan Orokorra Hirigintzako Planeamenduen Administrazio Erregistroan jaso dela.

Zazpigarrena. Behin betiko onarpenaren erabakia egunkarietan argitaratzea.

Zortzigarrena. Dokumentua eta espediente administratiboa bidaltzea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera.

ERREKURTUAK:

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezake interesatutako Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Tolosan, 2009ko martxoaren 31n

ALKATEA

Gaur 19:00etan, Udaleko koordinazio batzordeak osatzeko bilera

Alegia » Arloz arloko lanketa egitearekin batera taldeak egin nahi dituzte, aldi berean aurrekontuak lantzen jarraituz.

ERREDAKZIOA

Aurrekontuak lantzen hasiak dira Alegiako udal txan. Ingurugiroa, hirigintza, gizarte gaiak, kultura... Horietan arloz arloko lanketa egitearekin batera, koordinazio batzordeak ere egin nahi dituzte, eta lehenengo gaur izango da, 19:00etan hasita, udal txan bertan.

Irekia da bilera, beraz, «herritarrei deia egin nahi diegu bertan parte hartzera anima daitezen». Azken batean, helburua da arloko esku artean zer helburu edo aurreikuspen dituzten azaldu eta eztabaidatzea. «Orain da mementoa herritarrek ere ikusten dituzten beharrik eta lehentasunak adieraz ditzaten, eta horretarako aukera izango da gaurkoa.

Haurrenganako abusu sexualen aurkako ekitaldia egingo du GASJEK

Tolosa » Informazioa emango dute eta kandelak banatuko dituzte, «haurtzarora lapurtu dietenen alde».

ERREDAKZIOA

Datorren hilaren 18an (larunbata) Tolosan GASJE elkarteak ekitaldi bat egingo du: *Kandela bana objektu sexual gisa erabiliak diren eta beldurarengatik hitz egin ezin duten haurren alde: euren haurtzarora lapurtu diete*. Hau guztia salatzen Triangulon stand bat jarriko dute 12:00etatik 14:00etara.

Gipuzkoako Abusu Sexualak Jasandakoen Elkarteak (GASJE), Triangulon kandelak eskainiko ditu eta herritarren laguntza eskatuko dute aipatutako haur horien alde, kandela bat piztuz. Horretaz gain, triptikoak ere banatuko dituzte informazioa emateko eta GASJEn txapal eta lazoak eskuratu ahal izango dira.

«Herritarren salaketa ere inportantea da»

Gizarte arazo latz hau salatu asmoz, herritarrek bertan parte hartzea eskatu dute elkarteok, «ger-taera gogor hauek gehiagotan eman ez daitezke».

Laburrak

Gaur, Txaramako festak antolatzeko lehen bilera

TXARAMA » Gaur bertan, Txaramako festetako aurtengo lehen bilera egingo dute, Txaramako plazan elkartuta. 20:00etan izango da eta «festetarako gogoarekin bazaude, animatu eta azaldu zaitez». Honela, denen gustuko festak antolatu ahal izango dira. Txaramako festa batzordeak egin du deialdia.

Intxurre KKEkoek sari handi bat zozkatuko dute

ALEGIA » Alegiako Intxurre futbol taldeak txartelak atera ditu saltzeko. Txartel hauen balioa euro eta erdikoa da baina zozkatzen duena honakoa da: bi lagunentzako afaria Donostiako Juanito kopia jatearekin; Donostiako Maria Cristina hotelean bi lagunentzako luxuzko logelan lo egiteko aukera eta gosaria; bi lagunentzako bazkaria Donostiako Igeldo hotela jatearekin eta 500 euro dirutan. Saria uztailaren 24ko ONC Eren azken lau zenbakiekin bat datorrenarentzat izango da. Alegiako tabernatan eskura daitezke txartelak.

Gaur, ezker abertzaleak antolatutako herri batzarra

AMEZKETA » Gaur, Amezketa balioanitzeko gelan 20:30ean hasita, ezker abertzaleak herri batzarra antolatu du. Bertan jorratuko dituzten gaiak hauek izango dira: Hauteskundeen balorazioa eta jarraitu beharreko ildo berriak. Bukatzeko, Etxerarekin abian jarri duen euskal presoen dispersioaren aurkako sinadura bilketa egingo dute.

Laugarren dago futbol taldea, 2-3 irabazi ondoren

ALEGIA » Intxurreko lurraldeko bigarren mailako futbol taldeak azken jardunaldia irabazi egin zuen Eibarren, 2-3ko emaitzarekin. Dagoeneko 13 partida jokatu dituzte igoera fasean eta 21 punturekin sailkapen nagusiko laugarren postuan daude alegiarrak. Aste Santuan atseden hartu eta hilaren 24ko asteburuan Segurako kontra jokatu beharko dute, orango honetan etxean, Alegian bertan.

Informatikako oinarriko ikastaroa antolatu dute

AMEZKETA » Amezketa, KZgunek informatikako ikastaroak antolatu ditu, oinarriko ikastaroak, hau da, Internet erabiltzeko, kutxako mugimenduak egiteko eta abar. Aukera asko ematen ditu. Honi buruzko informazio zehatza, dena dela, liburuetan lor daitezke eta izena eman nahi izanez gero liburuetan egin behar da. Ikastaroa doakoa da.



Insalus enpresan EREa sartzeaz

LIZARTZA » Insalus ur enpresan ERE edo lan erregulazio txostena aplikatu nahi dute eta honek zuzenean 22 langileri eragingo lieke. Guztira 30 langile daude Lizartzako enpresan. Zuzenean eragiten dieten 22 per-

tsona hauek datorren urteko apirilera arte aplikatuko liekete EREa. Larunbatean LABek deituta, elkarretaratzea egin zuten Trianguluan Insalus enpresako langileek; larunbatero egingo dute. N. URBIU



laz Petritegin izan ziren; aurten Astigarrako Rezolara joango dira. HITZA

Zurea da hitza

info

Peña Gantxegi hil dela eta: Tolosako Aranburu Jauregiari buruz

LUXIMA

Oso arkitekto ona izango da hil berri den Luis Peña Gantxegi baina... neri ez zait batera gustatzen Aranburu jauregiarekin egin zutena: eraikin historiko bat modernitatez horrela janztea akatsa iruditzen zait. Oso hotz dago etxe hori, herritarrengandik urrun. Ez dut uste etxearen barruko banaketa egokia denik, sarrerako hall osoa liburutegira igotzen den eskilaratara bideratua... Eta atzekalde horripilantea.

En fin: hori, tolosarrok sufritzen dugun liburutegi zerbitzua ez aipatzeagatik... Baina hor ez zuen berak kulparik.

Doluminak dena den nire partez, arkitektoaren familiari.

Ugarteko elkarteak antolatuta, sagardotegira


ERREDAKZIOA

Azken urteetan bezala aurten ere sagardotegirako irteera antolatu du Ugarteko Elkarteak. Oraindainoan beti Petritegin izan den arren, oraingoan Astigarrako Rezolara joango dira.

Hurrengo lerrotan joan nahi duenarentzat xehetasun gehiago daude: hilaren 18an, larunbatez, joango dira eta 12:45ean Ugarteko plazan elkartzeko dira bertatik autobusa hartzeko. Helduek 35 euro ordaindu beharko dute eta gazte txoek 29. Prezioaren baitan bazkaria, autobusa, kafea eta kopa sartuta daude.

7 urte arteko umeen prezioa 6 eurokoa izango da, autobusa ordaintzeko, hain zuzen. Giroa ez da faltako, aurreko urteetako a errepikatzen bada behintzat.

Beraz, joateko asmoa dutenek aurrez erosi beharko dute txartela Goikoetxea-enean. Txartelak erosteko azken eguna datorren asteartean izango da, hau da, hilak 14.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

PATXI JAUREGI > Gipuzkoako Pilota Federazioko lehendakaria

«Federazioen artean elkarrizketa sakon bat egon behar luke»



ARGAZKILARIA

Pilota » Bost hilabete inguru daramatza Jauregik Gipuzkoako Pilota Federazioko lehendakari gisa; bere erronka nagusia pilota batzea dela dio.

ESTI EZEIZA

Iaz, urte amaieran hartu zuen Gipuzkoako Pilota Federazioko lehendakari kargua Patxi Jauregik. Betidanik izan du harremana mundu honekin, orain urte gutxi arte ibili baita frontoietan, jokoan. Pilotarekin batera, herri kirolekin ere badu harremana, Aimar Irigoien harri-jasotzailearen ordezkari eta osaba ere bai baita.

Txikitatik izan duzu kirolarekin harremana.

Pilotan eta futbolean ibilia naiz. 16-17 urte inguru nituenean palan jokatzeko hasi nintzen eta urte gutxi beranduago Bilbon, Deportibon profesionaletarako debuta egin nuen. Hiru urte eskas ibili nintzen hor, eta gero, afizionatuetan duela sei urtera arte. Beti ibili naiz pilotaren munduan, edo honekin lotura duen jendearekin. Aipatu beharra dauzkatzeko dudana lagun bat, Migel Sorroa. Bera izan baitzen palan jokatzeko aukera eman zidana Galarreta pilotalekuan entrenatuz. Bestalde, bikote gisa gustukoena J. K. Olano, J. A. Juan Martiñena, N. Gasstearena eta P. Artola izan ziren.

Ordutik hona gauzak asko aldatu al dira?

Berrikuntza asko egin dira. Fede-

razioaren aldetik ere proiektu garrantzitsuak daude artean.

Zein da Gipuzkoako Federazioaren lana?

Hamar arlotan banatzen dugu gure lana. Alde batetik, eskola kirola dago. Hau zortzi eta hamasei urte bitarteko gaztetxoei zuzendua dago. Ondoren, Federazioko lehiaketa ofizialen antolakuntza, eta beste hauek: Gipuzkoako selekzioa, partaidetza-kirola, emakumea pilotari, kirol egokitua, euskara, kalitatea, eskugintza eta ikerketa.

Horietan indartsuenak zeintzuk direla esango zenuke?

Eskola kirola eta emakumea pilotari izenekoak dira une honetan, garrantzitsuenetakoa eta arrakastatsuenak.

Zertan datza eskola kirola?

Adin txikiko jendearekin eskolatan egiten den prestakuntza da. Zortzi eta hamasei urte bitarteko gazteei dago zuzendua, eta eskola garaietan egiten dute. Hauek pilotako lau jokamoldeetan zenbait saio egiten dituzte: eskua, zesta punta, paleta eta joko-garbi. Esaterako, 1.600 ikaslek hartu zuten parte ekimen honetan.

Eta Emakumea Pilotari?

Hau, emakumeen artean pilota sustatzeko asmoz sortu zen duela

bi urte, eta dagoeneko 300 lagun daude parte hartzen. Palaz jokatzeko dute, eta urtean zehar zenbait txapelketa jokatzeko dituzte.

Pilota elkarteak ere ugariak dira Gipuzkoan.

Bai, denera 100 inguru daude, eta horietan 1.800 pilotari ari dira. Epaila lanetan berriz, 80 lagun ari dira. Honek adierazten du indar handia duela pilotak gure artean. Azken batean, euskal kulturaren zati garrantzitsu bat dela.

Dena den, joko modalitateen artean ezberdintasunak daude.

Arrakasta handiena, normala den bezala esku pilotak dauka, profe-

Kopuru aldetik, klubaren artean ezberdintasun handiak daude; pilotari falta dute elkarte txikiak

sionalen mailan hiru enpresa baitaude. Horietatik bi oso garrantzitsuak dira, eta entzute handia dute komunikabideetan. Honek azken batean, erakarri egiten ditu gazteak.

Baina esku pilota ez da kasualitatez garrantzitsua. Duela urte batzuk, horren aldeko apustua egin zelako baizik.

Duela zenbait urte, pilota, orokorrean hartuta, modalitate guztietan, jaisten ari zen. Hala, esku pilota hemengo oinarri denez, telebista kateak hau babesteko eta zabaltzeko apustua egin zuten. Honekin, asko suspertu zen.

» MOTZ-MOTZEAN

■ Frontoi bat.

Tolosako Beotibar.

■ Pala jokalarri bat.

Joxe Mari Iturzaeta.

■ Puntista bat.

Jexux Mari Arriola Ondarres.

■ Eskuzko jokalarri bat.

Juan Martinez de Irujo.

■ Erremonte jokalarri bat.

Imanol Mujika.

■ Pilota modalitate bat.

Pala.

■ Pilota edo harria.

Biak.

Gainontzeko modalitateetan zein da egoera?

Erremintazko pilotan dago arazo, zesta punta, pala, eta horrelakoetan. Hauek oso ahulduta daude. Erremontea hobeto mantentzen da, Galarreta, profesionalen enpresa dagoelako, baina hauen egoera ere ez da onegia. Erremonteko jaialdi batzuk ere kendu dituzte, astean sei jokatzetik hirura igaro dira.

Kirol bezala, oro har ongi balortua al dago pilota?

Kirol gehienetan bezala, desberdintasunak daude, baina oro har bai. Lehen baino hobeto etazentzu gehiagorekin balortua dago.

Esan izan duzu, zure hurrengo erronka pilota batzea da: klubak, epailak nahiz pilotariak.

Lurraldeetako federazioek eta Euskadikoak hartu-eman gutxi dute azken urteetan. Bakoitza bere bidetik doa, eta askotan, ez gara oharitzen euskal kulturaren zati garrantzitsua dela pilota, eta denok honen alde egin behar dugula. Irizpide eta ikuspuntu ezberdinak daude, baina hala ere, elkarrizketa sakon bat egon beharko luke proiektuak adosteko.

Urtean txapelketa asko jokatu behar izaten dituzte gaztetxoak. Batzuetan ez al dira gehiegi?

Pilotak duen arrakastaren adierazle da hori. Asko daude, eta une batzuetan pilatu egiten dira. Hauek, egutegia hartu eta urtean zehar banatu beharko lirateke, baina hori ez dago gure esku. Txapelketa pribatuak, normala den bezala, beraieki komenizaienean antolatzen dituzte. Hala ere, lurraldeetako federazioak elkarrekin bagara, eta adostu, bakoitzeko txapelketak noiz izan behar duten, nahiko erreza ikusten dut. Baina arazo txapelketa pribatuekin dago. Klub eta pilotari batzuek hauei ematen diete lehentasuna, sariak hobeak baitira. Hor dago borroka. Pilotariak bete behar dituzten baldintzen artean dago, Federazioak antolatutako txapelke-

tetan parte hartu behar dutela. Baina hau ezin da %100 bete, pilotariak ezin ditugu behartu.

Zeintzuk dira, une honetan pilotak dituen gabezia handienak?

Klubaren artean desberdintasun handiak daude. Batzuk oso indartsuak dira eta txikiagoetako pilotariak, aurrera egiteko nahiarri jarraituz, hauetara joatea erabakitzen dute askotan. Ondorioz, txiki horiek gero eta ahulago egiten dira, eta egindako lana ez da baloratzen. Hau da, gaztetxo bat hasten da elkarte txiki batean, hor ikasten du jokatzeko, baina gero, aurrera jarraitu nahi duenean, talde handiago batera joatea erabakitzen du. Halaber, pilotari falta dute elkarte txikiak, ezin dute behar bezala lana egin, pilotari batzuk biltzen dituzten heinean, besteek alde egiten baitiete. Oro har, klub handietan zentralizatuta daude pilotariak.

Afizionatutik profesionaletarako pauso hori, handia al da?

Ez da horrenbestekoa. Baina enpresen ikuspegia ekonomikoa da. Zenbait pilotari, denbora askoan, afizionatuen mailan, punta-puntan ibili harren enpresek ez diete ematen profesionaletan debuta

Eskola pilota eta Emakumea Pilotari dira orain gure Federazioaren proiektu garrantzitsuenak

egiteko aukerarik. Nire iritziz, salto hori emateko aukera luzatu behar zaie gazte horiei, eta urtebetean edo hor eduki, ikusteko ea profesionaletan ongi dabilzan edo ez. Ez badute mailarik erakusten, edo hobetzen, hor dago berriro afizionatuetara itzultzeko aukera. Baina gutxienez debuta egin utzi, eta proba egin. Izan ere, horietako askok, afizionatu mailan irabazi beharreko txapelketa guztiak eskuratu dituzte, eta triste da, pilotari horiek profesional mailan jokatzeko edo proba bat egiteko aukerarik ez izatea.

Enpresek zergatik egiten dute aukeraketa hori?

Hauek enpresak dira azken batean, eta arlo ekonomikoki kirolaren baina gehiago begiratzen diote. Finean, enpresek maila bakoitzean pilotari kopuru zehatz bat behar dute, eta hauek badituztenez, horrela jokatzeko dute. Baina normala denez, afizionatu mailan, hor goian dabilzan pilotariak profesionaletarako pausoa eman nahi dute, eta horrenbeste urte aritu ostean ez badute lortzen, izugarriko etsipena da beraietarako.

Eskualdean, zer moduz ikusten duzu pilotaren egoera?

Oso ongi dagoela esango nuke. Pilota eskola garrantzitsuak dauzkagu, pilotari askorekin, eta maila onekoak. Afizio handia dago eskuzko pelotan behintzat. Beotibarren zesta puntako eskola ere badago. Emakume pakistak ere badauke...

GIPUZKOA eskuak bete lan

Gipuzkoak etorkizunaren alde jokatu du Arlabango hesia zulatu eta Arabara hurbilduko gaituen autopista berriarekin

Gipuzkoarren etorkizunaren aldeko apustua 500 milioi euroko kredituak izenpetzea izan da, Donostiako 2. ingurabidea eta Eibar-Gasteiz (AP-1) autobidea finantzatzeko.

Errepide berriak eraikitzeko inoiz egin den programarik zabalenean bildu dira:

- Eibar-Gasteiz autobidea (AP-1)
- A-8 eraberritzea eta zabaltzea
- Beasain - Bergara ardatza
- Donostiako 2. ingurabidea

1.000 milioi euro baino gehiagoko inbertsioak Gipuzkoako errepide mapa eraldatuko du.

Lanari ekitea, beti beharrezkoa, batzuetan ezinbestekoa.

Gipuzkoa, zurekin aurrera.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



BIDEGI

GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA
AGENCIA GIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS

Miren Billelabeitia, Ibon Egaña, Iratxe Retolaza eta Jon Kortazar izan ziren Ibarren *Eguno euskal poesiaren historia* liburua aurkezteko. R. CALVO

Axun Aierberen lanak 'Eguno euskal poesiaren historia' liburuan

Ibarra » Lanak hainbat ikerlarien azterketa artikulua biltzen ditu; ibartarrak Irastorza eta Igerabide aukeratu zituen.

REBEKA CALVO

Lan asko egin zuen Axun Aierbe ibartarrak bere bizitzan zehar. Orain urtebete hil zen, baina oraindik ere bere idatzi eta azterketak kaleratu beharrean dira. Horieta-ko batzuk dira *Eguno euskal poesiaren historia* liburuan argitaratu dituztenak; Tere Irastortzaren *Manual debozio gabecoa* eta Juan Kruz Igerabideren *Mailu isila* artikuluen gainean ibartarrak eginda-

ko azterketak dira liburuan irakurri daitezkeenak, hain zuzen.

Euskal Herriko Unibertsitateko kritikari talde batek osatutako liburua da eta Aierberekin batera, besteak beste, Ur Apalategiren, Lourdes Otaegiren, Alvaro Rabelliren, Angel Erroren edota Ibon Egañaren azterketa lanak ere irakur daitezke bertan.

Ibarren diru laguntza

Lanaren aurkezpina Ibarra Kultur Etxean egin zuten ostiral iluntzean, izan ere liburua argitalpenean EHUko Argitalpen Zerbitzuak eta Ibarra Udalak jarri dute dirua. Liburua Donostian aurkeztu zuten lehengo, ostiral goizean, eta arratsaldean ere gauza

bera egin zuten Ibarren euskalzailearen familia eta lagun artean.

Artikulu guztiak bildu eta zuzentzearen ardura Jon Kortazarrek izan du eta bertan. «1978 eta 2001 urte arteko poesi lanak aztertu» dituztela esan zuen aurkezpenean. «Lanik zaharrena 1978. urtekoa da, *Etiopia* izenekoa, hain zuzen, eta poesia lanik berriena, aldiz, 2001eko da, *Bitartean heldu eskutik*», argitu zuen.

Lanean parte hartutako ikerlarietako batzuk ere gerturatu ziren Ibarra, tartean lankide izatearekin batera unibertsitateko ikasleak ere izandako bi: Ibon Egaña eta Iratxe Retolaza. «Nik Axunek lanerako zituen hiru dohain azpimarratu nahi ditut: besteen lanak

laburtzeko oso ona zela, dibulgaziorako dohain berezia zuela eta testuak zein ideiak egituratzeko zuen gaitasuna ere. Ikasleen behintzat asko eskertzen ditugu ezaugarri hauek irakasleengan. Bere argitasuna ere oso eskertzekoa zen», esan zuen Retolazak. Aierberen ikasle ohiak Miren Agur Meaberren *Azalaren kodea* lana aztertu du libururako.

«Axunen argitasuna»

Ibon Egaña ere bere ikasle ohiak izandakoa da eta *Eguno euskal poesiaren historia* liburuan Harkaitz Canoren *Kea behelainopean bezala*, Karlos Linazasororen *Euriaren eskuak* eta Jose Luis Otamendiren *Lur bat zure minari* la-

nak aztertu ditu. Egañak ere Aierberen «argitasuna» azpimarratu zuen eta ikasle bezala bere lana asko eskertzen zuela ere gogoratu zuen. Aurkezpenean, dena den, Aierberen azterketaren inguruan hitz egin zuen. «Axunek bi lan aztertu zituen: Tere Irastortzarena eta Juan Kruz Igerabiderena. Azken honen kasuan, batetik 2002ko jatorrizko lana aztertu zuen eta baita ondoren, 2004an, Igerabide berak egindako zuzenketa ere; biak hartu eta konparatu egin zituen. Bestetik, Igerabideren iturriak aztertu zituen eta bata bere mundu ikuskera ere», azaldu zuen Egañak.

Hitza hartu zuen azkena Miren Billelabeitia izan zen eta honek ere

Irastorzaren 'Manual debozio gabecoa' eta Igerabideren 'Mailu isila' lanak aztertu zituen Aierbe libururako

Bere ikasleek laburtzeko eta ideiak egituratzeko zuen dohaina azpimarratu zituzten

Aierbek lanerako zuen gaitasuna goraiatu zuen. Billelabeitiak Aurelia Arkotxaren *A tari ahantziak* eta Rikardo Arregiren *Kartografia* lanen inguruan hitz egiten du liburuan.

Euskal Literaturaren Hiztegia

Bestalde, aurkezpina Euskal Literaturaren Hiztegia izeneko webgunea (www.ehu.es/ehg/literatura) aurkezteko ere baliatu zuten.

Webgunean 150etik gora literatur lan buruzko informazioa bildu dituzte eta kopurua handitzen joango direla ere argitu zuen Kortazarrek. Oraingoz literatur lanei buruzko artikulua bilduko dituzte bertan, baina aurrerago idazleei buruzkoak ere bilduko dituztela gaineratu zuen idazleak.

Aberri Egunean ikurrinak zabaltzeko deia egin dute

Aberri Eguna » Irundik Hendaiara joango den martxa nazionalen parte hartzeko ere eskatu dute eskualdean.

ERREDAKZIOA

Datorren hilaren 12an Aberri Eguna izango da eta hori dela-eta eskualdeko hainbat herritan egun horretan ikurrinak balkoietan jartzeko deia luzatu dute.

Horiek horrela, Ibarra Euskar Herriari kideek Aberri Eguna «Araba, Bizkaia, Gipuzkoa,

Beha Nafarroa, Nafarroa Garaia, Lapurdi eta Zuberoako herritar guztiarentzat ospakizun eta aldarrikapen» eguna dela gogoratu dute.

«Aurtengoan ere, banatzen gaituena albo batera utzi eta batzen gaituenari helduz, deialdi bateratua dugu Aberri eguna ospatzeko: Irundik Hendaiara burutuko den martxa nazionala, hain zuzen», gaineratu dute.

Aldaketa garaia, burujabetza garaia lelopean egingo den Irundik Hendaiarako ibilbidea egitearekin batera, Aberri Egunean balkoietan ikurrina jartzeko deia ere luzatu dute, gainera, Bai Euskal Herriari-

koek. Hau dela-eta ikurrinak herririko hainbat herritan jarri dituzte salgai 7 euroren truke; Errotatxo, Mertzxe, Santos, Barriola harategiak, Bikoitz arraindegian eta Azoka dendetan jarri dituzte salgai, zehazki.

Anoetan ere ikurrinaren alde

Anoetan ere ikurrinaren aldeko aldarrikapena egin zuten.

40 bat lagun bildu ziren Aberri Egunako ibilaldian parte hartzeko deia egiteko eta baita balkoietan ikurrina jartzeko eskatzeko egiteko ere; ikurrinak Itzuli tabernan eskura daitezke Anoetan.



Ibarra eta Anoetan egin dute ikurrinak balkoietan jartzeko deia. R. CALVO-HITZA

Euskararen Eguna ospatzeko ateak zabalduko dituzte bihar institutuan

Leitza » Amazabal institutuko irakasle eta ikasleek egitarau oparoa antolatu dute «denentzat» Euskararen Egunean.

ASIERIMAZ

Leitzako Amazabal institutuko ikasle eta irakasleek herritar guztiari gonbitea luzatu diete: «Azaldu bihar ospatuko dugun Euskararen Eguna».

Deialdiarekin batera hilaren 8rako egitaraua aurkeztu dute, herriarregana zuzendutako hainbat ekimen azpimarratuz.

Gosaria eta zozketa

Euskararen Egunean Amazabalgoek herriko eskualtegia edukiko dute gogoan. Izan ere, «gosariarekin eta zozketarekin hartzen den dirua IKA eskualtegiarentzat izanen da».

Helburu honekin, ikasleak buru-belarri dabilta lanean. Alde batetik zozketako txartelak saltzen eta bestetik bihar eurek egin-gor duten gosaria prestatzen. Herriarrei ekimenarekin bat egitea eskatu diete institututik, prezioak ere merke jarriko dituzte: «Euro batean edaria eta ogitartekoa». Bihar beraz, 10:30ean Amazabale-
ra gosaltzera.

Egitarau oparoa

Euskararen Egunean ospakizuna goizean goiz hasiko dute ikasle eta irakasleek. Lehenik herri kirola-ko taldeak osatuko dituzte, hauen artean irakasleen talde bat ia ziur egonen dela. Ondoren, 09:00etan,

Leitzan eginiko pelikula ikusiko dute: *40 ordu*. Hortik aurrera, gosaria, mus txapelketa, herri kirolak eta sari banaketak etorriko dira. Azken ekitaldi honetan, 13:30ean, zozketako txartel irabazleen zenbakiak aukeratuko dituzte.

» EGITARUA

Bihar, hilak 8

- **08:30.** Parthartzailen izen emata eta prestaketa.
- **09:00.** *40 ordu* pelikularekin emaldi jangela.
- **10:30.** Ikasleek prestatutako gosariak institutuko sarreran. Herri-tarrak ere gonbidatuak daude.

- **11:00.** Mus Txapelketa gela.
- **11:30.** Herri kirolak goizean egin-dako taldeen artean atarian.
- **13:30.** Sari banaketak jangela.
- **14:00.** Autobusa garraiatuen-tzat.

Leitzarrek txanponaren bi aldeak ezagutu dituzte asteburu honetan pilotan

ASIERIMAZ

Abel Barriolak Banakako Txapelketa ez du jokatu lesio larri bat medio. Herenegun Eibarko Astelena pilotalekuan min hartu zuen eskuin belaunean. Atzo medikua-
ren azterketa pasa ondoren, «gerta zitekeen txarrena» iragarri zion medikuak: ligamentuen haustura. Lesio konputuan jakiterik ez dagoen arren, Aspeko arduradunen esanetan, «gutxienez lau hilabete eta erdirako eta gehienez sei hilabete tarako» kantzetatik kanpo egon beharko du Abel Barriolak.

Buruz-burukoan leitzarria final-laurdenetan aurkitzen zen. Orain, txapelketako arauen arabera, ez du inork ordezkatu eta aurkaria zuzenean finalerdietara sailkatuko da.

'Aputu Mundiala'

Bestalde, Otegi eta Zabaletari mundiala irten zitzairen iragan larunbateko apustua. Jendea Iruñetik, Tolosatik, Lekunberritik, ... hurbildu omen zen bi artisten arteko lehia ikustera. Leitzako plazan dagoen frontoi inguruak lepo aurkitzen omen ziren. Emaitzari dagokionez, Jon Otegi 30 eta 15 irabazi zion Joseba Zabaletari. Ondorioz, Zabaletak menua ordaindu beharko dio Otegi.



Otegi 30 -15 irabazi zuen. A. IMAZ



Egokitze lanen ondorioz leku aldaketak

LEITZA » Udaletxeko lehen solairuan konponketa eta berritze lanak apirilaren lehen hasi ziren. Ondorioz, bertan aurkitzen ziren bulegoak lekuz aldatu dituzte. Lanak uztaile edo abuztuan amaitzea espero da. Nekazal Ganbara; Cederna-Garalur; Karrape Irratia; Euskara Zerbitzua; Zeladorea eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA hilabete hauetan Nafarroako

Kutxako lehengo bulegoan kokaturik egongo dira, ONCEren kioskoaren ondoko lokalean, hain zuzen. Bake Epaitegiak bere zerbitzuak Udaletxeko bigarren solairuan eskainiko ditu. Ludotekak Erleta eskolan funtzionatzen jarraituko du eta IKA Eskualtegiak azkenik, euskara klaseak Txartikonea etxean emango ditu. ASIERIMAZ

Hilberriak

MARIA JESUS GABIRONDO ARANZABE

ANDREA.
-Goian bego

Udaberria heltzean joan zara gure ondotik, orain heren gaude burua altxa ezinik. Guk eskeini dizkizugun loreak ximelduko dira urteak igaroko dira baina zu inoiz ximelduko ez den lorea izango zara. Ez adiorik, gero arte baizik, izeba Maxux maitea.

Zure ilobak: Juan Karlos eta Bakarne, Mikel eta Amagoia, Xabier eta Ainhoa, Josune eta Xabier, Shukare, Matixa, Maddi eta Xuban



ALKIZAN
2009ko apirilaren
7an

SEBASTIAN ALZELAI IRIGOIEN



Sebastian kantu ta irri segi horrela beti.

Iker, Erkuden, Dorleta, Juanjo, Haitz, Kemen eta Artea

ZEGAMA
2009ko
apirilaren 7a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel. 943-65 56 95



10°
6°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	12°
HOTZENA	6°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Anoeta.** Festa Batzordeak herriko festei buruzko bilera berri bateko deialdia egin du. Gaur izango da, 18:30ean, udaletxean. Batzordeak herriko eragileei eta herritarrei orohar dei egiten die parte hartzera.

■ **Irura.** Loatzo musika eskolak batzarra gaur 19:00etan udaletxean.

■ **Tolosa.** Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko proba libreak aurki izango dira Tolosan. Izen-ematea Tolosako HHIn eman beharko da izena, eta azterketa maiatzaren 20an izango da, EPAn bertan.

Hitzaldia

■ **Ikaztegieta.** Bular minbiziaren prebentzioari buruzko hitzaldia Udal Liburutegian 18:00etan. Kaxalin, Bularreko eta Ginekologiako Minbiziaren Emakumeen Elkarteak emango du, Udaleko Gizar Zerbitzuen bidez.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Mariano Arsuaga artista tolosarraren *Kaleidoskopia+12* erakusketa Aranburu Jauregian.
■ **Tolosa.** Itziar Albisua zumarra-gatarraren olio-lan eta collage-ak Itaie tabernan.

Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkartek Galizara maiatzaren 11tik 17ra irteera antolatuko du 255 eurotan (ez bazkideek 260 euro). Izen-ematea, elkartearen.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Errepideko onenak Tolosan

Tolosa » 49. Euskal Herriko Itzulia eskualdetik igaro zen atzokoan; Astana taldeko txirrindulariak, gainera, Tolosan daude.

ERREDAKZIOA

Atzo hasi zen 49. Euskal Herriko Itzulia eta eskualdetik igaro zen gainera. Txirrindulariek Ikaztegieta, Alegia eta Abaltzisketa zeharkatu zituzten eta Larraitzetik ere pasa ziren. Ataunen amaitu zuten lasterketaren lehen jardunaldi hau. Luis Leon Sanchezek irabazi zuen.

Goieritik abiatuko dira gaur berri baina pelotoieko txirrindulari batzuk eskualdean jarraitu zuten atzo. Hain zuzen ere, Astana taldeak Tolosako hotel batean egon da. Tartean, une honetan errepideko azkarrenak diren Contador edota Haimar Zubeldia daude taldean. Ikusmin handia piztu zuten, batez ere txikien artean; eurekin argazkiak ateratzen saiatu ziren hauek. Lasterketa apirilaren 11n amaituko da Zallan.



Alegia igaro eta Amezketa bidean igaro ziren txirrindulariak. NEREA URBIZU

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



opor hauetan
atera argazkiak!



Sari mundialak



ARGAZKIAK NORA BIDALI

• **P. elektronikoa:**
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
• **Postaz:**
Argazki lehiaketa,
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza,
Araba etorbidea 5 behea, atzea
20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo
Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

Parte-hartzaile eta boto emaleen artean
HITZAko materiala zozketatuko dugu!